

# uztarria

|||Azpeitiko herri aldizkaria |||2012ko abendua |||145. zenbakia |||



## INDARREAN

Erabaki ekoizpen etxe berriaren  
lehen fruitua, 'Oinaze galduak' 20

# MILAR LARRAMENDI

Xabier de Munibe, 11 · Julio Urquijo, 16 · Tel. 943 85 18 97 · www.milarlarramendi.com



## KALITATEZKO ELEKTROGAILU SELEKZIOA

### GABONETAN OPARI SEGURUA



ARROPA GARBIGAILUA W 3240

6 KG 1400 RPM SECURE PROF

ORAIN

# 799 €

LEHEN 889 €

LABEA H 4318 BPEDEST + GIA EXTRAIBLEAK

PIROLITIKOA , ESMALTE BEREZIA , FILTROAK , 4 KRISTAL...



+



ORAIN

# 999 €

LEHEN 1280 €

ONTZI GARBIGAILUA G 4100 SC



ORAIN

# 599 €

LEHEN 730 €

ASPIRAGAILUA S 4212



ORAIN

# 159 €

LEHEN 195 €

## Miele

SIEMPRE MEJOR

## Miele

SIEMPRE MEJOR

## Miele

SIEMPRE MEJOR

GOGORATU MIELE-ren ELEKTROGAILUAK 20 URTEZ LAN EGITEKO TESTATUAK DAUDELA  
Prezio hauetan elektrogailuaren instalazioa eta zaharra garbigunera eramatea barne dago.



# uztarria

**Argitaratzailea.** Uztarrria  
 Komunikazio Taldea. Azpeitia  
**Egoitza.** Perez Arregi plaza 1, behea,  
 (Azpeitia, 20730)  
**Telefonoa eta faxa.** 943 15 03 58  
**Posta elektronikoa.**  
 uztarrria@uztarrria.com  
**Posta kutxa.** 227, Azpeitia  
**Lege gordailua.** SS-860/2000  
**Zenbakia.** 145.a (2012ko abendua)  
**Urtea.** XIII.a (1999ko azaroan sortua)  
**Maiztasuna.** Hilabetekaria  
**Diseinua.** Eregi Komunikazio eta  
 Euskara Zerbitzuak  
**Publizitatea.** 685 730792 /  
 oalegria@uztarrria.com  
**Bazkideztza.** 943 15 03 58  
**Tirada.** 2.500 ale hilerok  
**Inprimategia.** Leitzaran Grafikak  
**Azaleko argazkia.** Oihan Amezia  
**Web orrialdea.**  
[www.uztarrria.com](http://www.uztarrria.com)

**Uztarrria herri aldizkariaren laguntzaileak** (erakunde publikoak)



**Uztarririk Bai Euskarari** **Oharra.** Uztarrria Komunikazio Taldeak ez du bere gain hartzen herri aldizkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik

## 2012KO ABENDUKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER? |||||||||



04

### iritzia

**Inkesta.** Baserritarrez jantziko al zara santomasetan? **13**

### mamia

**Naroa Azurmendi eta Manex Beristain.** Nepalgo bidaiak hizpide, umeentzako liburua idatzi dute **04**

**Klik!** Ingurumen heziketarekin lotutako eskaintza zabala, ingurugiro etxean **16**  
**Mixio Taldea.** Bidezko merkataritza bultzatzen. **24**

### jakiteko

**Jose Mari Orbegozo.** Oholtzatik jaistean ere dantzaria da bizitzako beste alorretan ere **34**



16



34

**Ba al dakizu 'korrika 18' Azpeitiko kaleetatik datorren urteko martxoaren 20an pasatuko dela?** **Uztarrria**

# egin zaitez bazkide Uztarrian 943 15 03 58

**Herri aldizkariak gain, Uztarraren produktuak ere eskuratuko dituzu.** Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **12 liburu** (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



**1.060** bazkide **30** euro dira urtean.  
**gara** dagoeneko Uztarrian; 126.540 euroko aurrekontua du Uztarririk 2012. urterako.  
 eskerrik asko denei.



**Liburuxka biografikoak.** Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Berqara, Bernardo Aizpirtarte 'Kabra', Enrike Zurutuza

# NAROA AZURMENDI/MANEX BERISTAIN

‘Kabir eta Samanen abenturak’ liburua ren egileak

## “Hemen go umeentzat mezu bat sortu dugu”

Nepalera eginiko bidaiari ikusi, ikasi eta sentitutakoa islatu dute elkarrizketatuek, “umeen pentsamendu magikoan” oinarritutako ipuinean. ✍️📺 Eneritz Albizu

**P**asatu den zutailan joan eta Kathmandu, Nepal, pasa dituzte bost aste Beristain eta Azurmendik. Lehen hiru astetan eskola batean jardun dute lanean, eta hurrengo biak bertako mendiak bisitatzen pasatu dituzte. Bidaia honetatik sortu da *Kabir eta Samanen abenturak*, haurrei zuzenduriko liburua.

**Zergatik joan zineten Nepalera liburu bat idaztera?**

**NarOA Azurmendi:** Hara joan aurretik, jada buruan genuen ipuina sortzeko ideia. Kasualitatez jarri ginen kontaktuan bertako neska batekin. Hark eskola bat zuen, eta joan eta lan egiteko gogoarekin geunden. Hala ere, zer zegoen ikustera joan ginen, gure asmoa ez zen haien laguntzaile izatea;

ziur geunden haiek gurekin bezain beste ikasiko genuela geuk ere haiekin.

**Nolako zen zuen eguneroko bizitza han?**

**N.A.:** Goizetan ni umeekin egoten nintzen: jolasten, tailerrak egiten, landareak zaintzen... Manexek, bitartean, liburua idazten zuen.

**Manex Beristain:** Umeak joatean, etxekoekin egoten ginen. Biok irakasle izanda, hezkuntzaz hitz egiten genuen eta planak osatzen genituen eskolan hobekuntzak egiteko.

**Zer izan zen bidaiako gauzarik bereziena edo bitxiena?**

**M.B.:** Egunerokotasuna. Lau nepaldar gazterekin egon ginen bizitzen. Elkarbizitza batek eman ditzaken gauza denak bizi geni-



Manex haurretako batekin.

tuen: une onak, haserreak, euforiak... emozio nahasketa guztiak.

**N.A.:** Egia esan, desberdintasun handiak ikusi genituen kultura aldetik; baina gu ikuspegi irekiarekin joan ginen hara, eta haiek ere zabalik jaso gintuzten.

**M.B.:** Batzuetan, kulturak asko urruntzen du; baina konfiantza dagoen lekuan, etxe barruan, denok berdinak gara. Milaka kilometrotara dago hura, bakoitzak bere historia du, eta ezin dugu saiatu berdinak izaten. Elkarrekin harritu egiten ginen askotan, baina ikasi ere egin genuen: hori gauza positiboa dela uste dut nik. **Zein izan da liburua idazteko pizgarria?**

**M.B.:** Ipuina apustu pertsonala da: guk bizi izan duguna islatu dugu. Egoera batek aberastu egin gaitu, hona ekarri dugu eta hemengo umeentzat ere mezu bat sortu dugu. Zuzenean ez bada ere, kultura desberdin bat ezagutuko dute.

**N.A.:** Hizkuntzatik hasita, umeek





Gurukul eskolako partaideak; tartean, Azurmendi -behean, ezkerrean- eta Beristain -Naroaren eskuinetara-. |||

ipuiña bi hizkuntzatan ikustean, beste hizkuntza eta alfabetoak badirela jakingo dute. Kanpoko herrialde bat, janzkera... dena berria izango da hauentzat.

#### **Zergatik euskaraz eta nepaldarrez?**

**N.A.:** Garbi genuen euskaraz eta nepaldarrez egingo genuela. Ingelesarekin ere zalantzan egon ginen; azkenean, komunikatzeko hizkuntza izan baita guretzat. Halere, ez zen inoren ama hizkuntza, eta euskara eta nepaldarrez egiteak hartu zuen zentzua guretzat.

#### **Nola banatu duzue lana?**

**N.A.:** Manexek idatzi du euskaraz, nik itzuli dut ingelesera eta gurekin bizi zen mutil batek, eskuz, ingelesetik nepaldarrera pasatu du. Prozesua uste baino zailagoa izan da: haien eta gure alfabetoak desberdinak dira eta bitarteko bereziak behar izan ditugu. Ipuineko marrazkiak, berriz, nik egin ditut: erronka bat izan da, ez baina marrazkilaria. Lan honek zerbait berezia badu, gugandik irten dela da. Ez dugu nahi izan ezer komertziala edo profesionala egiterik: kalitatea hobea edo txarra goa izango da, baina geurea da.

#### **Laguntzarik izan al duzue ipuiña egiterakoan?**

**M.B.:** Bai, kolaborazioak garrantzitsuak izan dira. Eskolako gizonak marrazki bat egin zuen eta Nepalen ezagutu genituen Gasteizko Ainarak eta Nereak ere kolaboratu dute. Naroaren anaiak, Beñatek, diseinu kontuetan lagundu digu; eta Erroteta argitaletxearen aldetik ere, laguntza asko jaso dugu.

#### **Zer mezu nahi duzue helarazi istorioarekin?**

**M.B.:** Ipuinak umeen abenturarako gogo hori islatzen du. Protagonistak eskolako umeak dira, ume bereziak: batek zailtasunak ditu oinez ibiltzeko eta besteak, berriz, harremanetarako gabeziak. Kabirrek bultza egiten du Saman abenturan murgiltzera eta bera da oinez ibili ezin duena. Samanek, berriz, amaieran Kabir salbatzen du; komunikatuz eta hitz eginez, gehien kostatzen zaion hori eginda, hain zuzen. Amaieran euren beldurrei aurre egiteko gai direla ikusten da. Nepaleko elementuak islatzea ere nahi izan dugu: tigrea, tximinoa, mendi altuak, eskola...

#### **Nori zuzenduta dago?**

**M.B.:** Berez, 3-5 urte arteko umeentzako da, oraindik pentsamendu magiko hori bizi eta ulertzen

dutelako. Halere, guztientzako izan daiteke interesgarria. Gurasoek paper garrantzitsua dute interpretazioan, testuingurua azaldu behar diete umeei.

#### **Zein izan dira ipuiña idaztearen arrazoiak?**

**N.A.:** Bi helburu nagusi ditu ipuin guretzat: alde batetik, zalan-tzarik gabe, eskolarentzat dirua lortzea. Bestea, ordea, pertsonala da: gure ilusio guztiaz eginiko gauza bat da. Guretzat sekulako poztasuna da euren hizkuntzan eta gurean ipuin bat idatzi eta beraien ipuin hori eskuartearen izatea. **M.B.:** Ipuinarekin hustu egin gara: emozioak, tentazioak, pozak... Euskal Herrian ezingo genuke idatzi, ezberdina izango litzateke.

“Ez dugu nahi izan ezer komertziala egiterik”

“Ez du perfektua izan beharrik, ilusioz eta mimoz egina bada, ona da”

#### **Zer sentitu duzue prozesu osoan zehar?**

**M.B.:** Prozesua luzea eta polita izan da, oso aberasgarria. Nik uste, liburua ateratzean sekulako poza eta harrotasuna sentituko dugula.

**N.A.:** Ilusioa azpimarratuko nuke. Ez dugu haientzat soilik egin lana, geure buruagatik ere egin dugu: erronka pertsonala izan da. Zergatik ez? Ez du perfektua izan beharrik, ilusioa eta mimoarekin egindako zerbait bada, ona da.

#### **Noiz kaleratuko da liburua?**

**M.B.:** Hil honetarako prest egongo da. Iratzeren erosteko aukera izango duzue eta liburutegian ere egongo da aleren bat. Bestela, Internet eta sare sozialen bitartez zabaltzen ere saiatuko gara, oraindik ez dugu ongi pentsatu. Gure helburua, oraingoz, hemen inguruan zabaltzea da.

#### **Aurrera begira, beste proiekturik ba al duzue?**

**M.B.:** Agian honek berak emango digu joko: kontakizunak egin, musikarekin nahasi...

**N.A.:** Lan bat itxi gabe zaila da beste proiektuetan pentsatzea. Etortzen dena, ez dugu planik egin, baina ziur etorriko direla gauzak.\*

# Bidearen amaiera

# U

rtea amaitzearekin batera nire Uztarriako kolaborazioen bukaera ere iritsi da. Hiru urte eta erdiko abentura luzea izan da, hiler- hiler zenbait buruhauste baina poztasun gehiago eman izan dizkidan lankidetzat bat. Hasieta batetik ilusio handia egin zidan abentura bat izan da, irakurleekin batek dituen ideiak eta ikuspegiak partekatzeak aukera paregabea.

Nire lehenengo kolaborazioan galdera bat helarazten nizuen denoi. Hain zuzen ere, iraganera begiratzeak zertarako balio digun. Galdera honen erantzuna garbiago baduzue orain nahiko sari litzateke niretzat, nire helburuak beteta geldituko liratezke. Badakizue iada ziurrenik, nire ustez ezinbestekoa dela iraganera begiratzea orainaldia ulertzeko. Iraganeko ikasietan daude gaur eguneko gertakarien nondik norakoak ulertzeko klabeak. Hain zuzen ere, iraganeko akatsak kontutan izan behar ditugu etorkizunean berriro ez errepikatzeke. Ildo horretan, orain dela gutxi argitaraturiko artikulu zientifiko batek zioen bezala, gizakiek eta primateek antzeko jokabideak ditugu muturreko egoeretan. Baina gizakiak garatu duen ezaugarri nagusia hizkuntza garatuarena da. Berau izateak aukera ematen digu elkarrekin komunikatzeko eta akordioetara iristeko. Bada garaia hizkuntza izatea gure tresna bakarra dauden arazoak eta gaizki ulertuak konpontzeko.

Sozialki sentikorra den gizarte bat garatzearen beharra ere konstante bat izan da nire urte hauetako idazkietan. Uste dut ezinbestekoa dela gizarte justuago bat garatzea, guztion beharrak asetzen saiatzen dena eta dagoen aberastasuna justuago banatzen dakiena.

Kultura garapena ere garrantzitsua izango da etorkizuneko gizartearen garapenerako, eta gurera etorriaz, azpimarratzen saiatu naiz nire idazkietan zenbat kultur potentzial daukan gure herriak. Ez da kasualitatea Europako hizkuntzarik zaharrenetarikoa izatea bere



markel mendizabal

Ahots eta ideia berriek jarrai dezatela aldizkari honetako orrialdeak bustitzen

ikur nagusienetarikoa bat. Ondo kudeatzen den kultura-arloa herri batentzat aberasgarria eta beharrezkoa da.

Azkenik, politikan parte-hartze modu berrien beharra ere aipatu dut. Ondorengo belaunaldiei hobeto kudeaturiko bizitza publikoa behar dugula oso firmeki sinesten dut.

Ea aipatu berri ditudan arlo guztietan gure gizarte etorkizuneko erronkei aurre egiteko gai den. Denon onerako izango dela ziur nago.

## Gero arte, ez adio

Azkenik, eskerrik beroenak eman nahi nizkieke Uztarria kultur elkarterako kide guztiei, leiho bat eman didatelako nire herritarrei gai desberdinei buruz jarduteko.

Eta beraien lana goraiatzeko ere ezinbestekoa deritzot, beraien kultura eta herri dinamikaren sustatzaile bezala egiten duten rolagatik. Ezin ulertu Azpeitiko azken hamarkada hau beraien ekarpena konstante izan gabe.

Azkenik, ahots eta ideia berriek jarrai dezatela aldizkari honetako orrialdeak bustitzen, denontzat mesedegarri izango da eta. Gero arte guztioi, ez adio!!\*







# ONDO PASATU SANTU TUMASAK 2012

Azpeitiko Udazkeneko Azoka Berezia, dantza txapelketa, musika, buruhandiak, txorizoa, bertsolariak, pilota partidak... egun guztian zehar herriko kaleetan



Azpeitiko Udalak dei egiten dizue azpeitiar guztiei eraso sexisten aurrean jarrera aktiboa har dezazuen. Eraso sexisten aurrean 112 eta 943 151313.



# Jodidus eukaliptus

**K**aramelo ederrak dira eukalipto-zkoak, zaporetsuak eta gogorak ditut atseginenak, sudurzuloak irekitzen dituztenak, telebistako iragarkian soka ahoan zuela hortz zuriekin agertzen zen arrantzalerenarenak bezalakoak.

Baporeak ere egin izan ditugu eukalipto hostoekin, neuri pertsonalki asko lagundu izan didate, askotan egin izan ez badituzte ere.

Gainontzean EZ, EZ, EZ, EUKALIPTURIK EZ! Ez hemen Euskal Herrian, ezta Galizian ere, mapa politikoetatik haratago, inguru hauetatik kanpora! Arbola bezala maite dut, errespetu osoa diot, baina ez dago dudarik ondoen Australian egonen dela.

Insignis pinuekin hasi ginen, orain dela mende eta erdi edo. Eman ere egia esan behar bada, eman digu, baina amaitu da, gaitzak jo du eta oraingoan larri jo ere. Geuk ezin neurria hartu eta badirudi naturak berak jarri dituela gauzak bere lekuan. Beraz eta mesez, ez gaitzean lerdotu, aski da, ez dezagun okerrera jo, utzi eukaliptua landatzeari!

Bizkaitik barrena gero eta gehiago ari da hedatzen, Gipuzkoan lehen alerik ez bazen orain baso gazteak ikus ditzakegu, konturazterako hedatuko da eta eskasa zena ontzat hartzen amaituko dugu, azkenean. Zahartzen garenean haurrei zer esan behar diegu? Ah Insignisa... hura bai arbola! Lurra sasiz beteta eta lehortuta uzten zuen baina basamortu hau baino hobea zen behinpein.

Denok dakigu eukaliptuaren zura paper industriarako erabiltzen dela. Badakigu lanpostu askori eragiten diola paper pulparen industriari Euskal Herrian, baina eukaliptuaren apostua alde batera uzteak ez dut uste arriskuan jar ditzakeenik. Inportatu dezatela egurra, edo nahi dutena asma dezatela, horko ingeniari, kimiko, industrial eta abar guztiek, baina utzi adarra jotzeari.

Bestalde, lurjabeek naturarekiko errespetua izan behar dute, eta ez badira konturazten negozio horiekin egiten ari diren kalteaz



iosu salegi

Orain ura dugu, benetako altxorra, baina idiotarena egiten jarraitzen badugu galtzeko bidean gara

ez dute merezi lurjabe izatea, ez baita hura jainkoak emaniko dohain bat. Ordaindu duelako bakarrik ez da natura horren jabe, berak ustiatu dezake hor dagoena, baina kontuz, beste guztioi eragiten digu, hor egiten den eragina izugarria da –ez naiz exageratzen ari– eta gaizki egiten badu urteetako kaltea eragin dezake ekologian. Kalte horiek erreku-peratzea oso nekeza izan ohi da gero. Galde-tu behe aldekoek bestela. Orain ura dugu, benetako altxorra, baina idiotarena egiten jarraitzen badugu galtzeko bidean gara. Ez dago urrutira joan beharrik hori ikusteko.

## Desertizazioa eta egarria

Espainiak kristoren zorra du, eta ez Alemaniarekin eta abarrekin, baizik eta ekologiarekin! Aspaldidanik egin behar zena egiteko garai txarrak ez dira. Banan bana arbolak

sartu eta erreforestazio nahiz ubi-deen plan serio bat egin. Lanpostu pila sor daitezke.

Guk ere nahikoa izurratu dugu ingurua kaminoekin, fabrikekin eta abar. Oraindik harro jar-

duten dugu geure paisaia gora eta behe-

ra, bada argi ibili gaitzela, gau-

zak izorratzea konpontzea baino askoz

zailagoa baita. Utzi eukaliptua landatzeari,

ja!\*





Azpeititik kanpora bizi bazara ere  
jaso zure etxean herriko berri hilerro-hilero



**uztarria**  
uztarria@uztarria.com  
943 15 03 58



## HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA.** Irgarkiak euskaraz.

Olentzerok ez dio ikatza behintzat emango dendari honi. Gabon atarian, jostailuak iragartzeko publizitatea banatu du etxe guztietara, euskara hutsean. **Uztarria**

**BEHERA.** Ikatza banketxe honentzat.

Erakuslehoan kolore bizi eta dimentsio handiko iragarkia du jarrita banketxe honek. Talde sendoagoa litzateke euskaraz beste hainbeste egingo balute. **Uztarria**



Iñaki Etxenagusia.

## ESANA DAGO

“Rallyetan esperientziak gehiago balio du tokia ezagutzeak baino”

IÑAKI ETXENAGUSIA  
argazkilaria

“Baserri giroan geratu balitz, museoan legoke bertsolaritza”

“Euskal Herri euskalduna lortuko bada, oso abersgarriak dira Bertso Eskolak”

“Gaur bezain ondo bertsotan inoiz ez dela egin ziur nago”

IMANOL LAZKANO  
bertsolaria





## Olentzeroren kezakak

**J**ostailuen katalogoak iritsi zaizkigu etxeko postontzira. Eroskiko apaletara aspaldi iritsi ziren turroiak, mazapanak eta abarrak. Herriko kaleak ere laister izango ditugu apain-apain, dotore asko argizatuta (ez izan presarik, alkate jauna). Hala da eta hala izan bedi. Gabonak badatoz eta bizi izan dugun beste urte bat badoa, 2012arekin bataiatu genuena.

EREan dagoen ikazkina ere hasi da txondorra zulatu eta mundu honetara batera errurrik gabe (berezko pekatuaz) etorri diren neska-mutikoentzat opariak atera eta atera.

Urte osoa kolpe zorrikerik jo gabe pasatu ondoren, egun bakarreko kontratua eginda, gau bakar batean milaka hurren zoriona jokoan.

Patagoniatik etorri berri den Olentzero jauna kezkatuta somatu dut. Pipa hortzean duela, marmarka, lelo bakar bat du: "Kosta ala kosta, hurren ilusioan murrizketarik ez". Baina jakin badaki aspaldiko erronkarik gogorrenari aurre egin beharko diola. Lehenago ere, larre motzeko urteak izan ditu baina esnemamitan hazi eta hezi diren gurasoen seme-alaben nahiak asetzea ez da lan



### txetxu urbieta

xamurra izango. "Hik zer egingo huke", galde-tu dit Olentzero lagunak. Erantzuna: Gurasoekin psikoterapia, oparien materialtasuna baztertu eta magiarekin indarrean sakondu. Oheratu aurreko hurren begi ederren dir-dir ordainezina, esnatu orduko arbolapeko oparixoak eragindako ezuste-aurpegia, hori da magia, hori da balio duena, hori da paradisu.

Haurrok izan lasai, Olentzerok ez dizue inoiz hutsik egingo (gurasoek agian bai). Zuek, bakar-bakarrik, bihotzarekin idatzitako gutuna bidali.\*

### IKUSTEKO!




### ▲BIDEGORRIA BELTZ ETA ITSU.

Landetako bizilagunek, oinezko gisa, inoiz ez dute erraztasun handirik izan. Azkenaldian oinezkoentzako pasabide eta semaforo berriek zerbait arindu dute egoera, baina badago zer hobetua. Amuko zubi ondotik bariantearen bestaldera joateko lur azpiko pasabidea, bidegorri ere badena, horren adibide da: zortzi argi ditu eta zortziak apurtuta, aspalditxotik. 📞📧 Uztarria\*

## |||AZAROKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...|||



|||maite garmendia|||



### *Literatur solasaldiak liburutegian*

**LETREN ERREINUA.** Lortu dugu, azkenean! Taldea osatu da, eta nolakoa gainera! Giro goxo eta lasaia, jende partehartzailea, dinamizatzaile bikaina, liburu interesgarria... Primerako osagaiak plater on bat lortzeko. Bigarren liburuari ekite-kotan gara. Ekimena abian jartzeak lan pixka bat eman du, baina martxan da jada. Zorionak guztioi!



### *Bertsoparrandan*

**ARRAKASTA.** Gauaz eta tabernan, parrandan bertsoa./Hemendik hara dabil bertsolai mordoa./Ilargi-argitan musak alaituz giroa,/noiz izango da aizu hurrengo saioa?



### *Beste urrats bat zero zaborrerantz*

**TUPPERRA.** Pixkanaka-pixkanaka urrats berriak ematen ari gara sortzen dugun zaborraren kudeaketari dagokionean. Denbora pixka bat pasatu da hondakinak sailkatzen hasi ginetik, eta oraingo honetan, plastikozko zorro eta paperak murrizteko helburuarekin,

herriko harategietara eta arraindegietara erosketak egitera joaten garenean eramateko tuperrak banatu ditu Udalak. Denon aldetik gogo pixka bat jartzea nahikoa delakoan nago ni. Bide onetik goaz!\*



## INKESTA

baserritarrez  
jantziko al zara  
santomasetan?

Ainitze Agirrezabala

PEDRO MENDOZA

jubilatua



"Lehen, inoiz jantzi izan naiz, santomasetako azoka-lehiaketara aurkezten baikin, baserriko fruitekin. Jantzi ez aren, ordea, urte osoan naiz baserritarra, han bizi eta egiten baitut lana".

KRISTINA AZPITARTE

etxeoandrea



"Ez naiz inoiz jantzi. Izatez azkoitiarra naiz, eta gabonetan eta sanandresetan ere ohiturarik ez dut izan sekula. Gure ume garaian jende gutxi jazen zen; orain ohitura gehiago dago".

MALEN BASTIDA

ikaslea



"Olentzeroren egunean ere jantziko naiz. Eta santomasetan

Begoña zaintzailearekin joango naiz plazara, txorizoa jatera".\*

**Kutxillo**  
Urdaiazpikoak, hostebeteak eta gaztak  
KALITATEA MODU ONEAN  
Ezail: 658 781 419. Orib: 618 240 173  
Damaso Azkue plaza 6, baihea.  
Tf: 943 15 09 19  
kutxillo@gmail.com

## Salto!

**D**esorekan bizi gara, barne mailan, Euskal Herrian bertan, nahiz lurralde ezberdinen artean. Honela, herrialde batzuk azpigaratu (deitzen) ditugun bitartean, hemen edozer erosi eta edonoz bota izan dugu zakarretara, non amaituko zuten askorik axola gabe. Urteen poderioz, herrialde azpigaratu batzuk garatze bidean egotera pasatu dira. Zenbait beldurzen ere hasi da, garatze bidean zirenak munduko potentzia nagusi bilakatzen ari dira eta.

Duda izpirik gabe Txina da herrialde horietan adierazgarriena. Asiar erraldoia, mila milioi biztanle baino gehiagorekin, munduko herrialderik populatuena da. Gaur gaurkoz zonalde ugari nekazal eremuak ditu, baina industrializazio prozesua gelditu gabe ari da aurrera. Munduko biztanleriaren seirena Txinan bizi dela kontuan hartuta, txinatarren bizi ohiturek sekulako dimentsioa hartzen dute mundu mailan. Guk bezain beste zabor sortzen duten egunean, ia-ia akabo mundua!

**galtzen hasita, zer izan zen aurrena: jainko guztiz Ahaltsua, oiLoa ala arrautza? Uztarria**

## Naximentua

**G**ure baserri zaharrean, umeak ginela, urtero izaten zen jaiotza berriren bat, baina Gabonetan ez genuen naximenturik jartzen. Orain bai, jartzen dugu, nahiz eta haurrik ez den ia jaiotzen.

Garaiak galanki aldatu dira, baina irudi maitagarriak hor dirau: naximentua. Aita-amak haurrarekin: zer nahi duzu xumeago eta samurragorik? Zer betikoago eta beteagorik? Zer humanoago eta jainkozkoagorik? (Eta aita-amen ordez bi ama badira, edo bi aita? Ondo badira, ondo da. Ondo bitez!).

Naximentua: ama Maria, aita Jose eta Jesus haurtxoa. Baina ez pentsa etxe edo aterpetxo hartan jaiotza bakarria izan zenik. Markosen ebanjelioak argi eta garbi dio Jesusek lau anaia zituela (Jakob, Jose, Simon eta Judas) eta "arrebak" gainera (bat baino gehiago, alegia; baina haien izenik ez zaigu ematen: neskak izan...).

Horra hor, bada, naximentuan Maria eta Jose Jesus haurrarekin. Dogma kristauak dio, ordea,



yuri agirre

Adituek diotenez, txinatar guztiak batera salto egingo balute, planeta bere ardatzetik mugiaraziko lukete. Azpeitiarrok harro fama dugu, eta apustu zalearena ere apur bat bai. Ez gara hainbeste, ezta gutxiago ere, baina paparra erakusten trebeak ez garenik ezin esan. Nolanahi ere, aitortu dezagun, kostatuko litzaiguke denok batera eta indar guztiakin salto egin arren lurrikaraxoren bat sortzea ere.

Eta, hala eta guztiz ere, egin ditzakegu gauza handiak. Hondakinak gaika sailkatu eta etxe atarian uztea salto egitea bezain erraza da. Ez dugu planeta hankaz gora jarriko, alderantzizkoa, gorago aipatutako desokera gutxitzen lagunduko genuke. Aldaketa txikia dela? Noski, baina txikitetasunak egiten gaitu handi. Hondakinak biltzeko atez ateko sistema jarri duten herrietan, birziklatze tasei buelta ematea lortu dute, %20a izatetik %80a izatera pasatuz. Nik uste, badugula salto egiteko garaia.\*



joxe arregi

Jesus ez zela Joserren semea: "Jainkoaren semea" zela eta ez zuela gizonezko aitarik. Nork uler dezake gaur horrelakorik? Zuk ez? Nik ere ez.

Dogma kristauak dio gainera Jesus "Jainko enkarntua" dela. Hori bai, sinesten dut eta nahi nuke sinetsi, baina ez edonola. "Jainkoa" ez da Izaki Goren estralurtarra, unibertsoan leku batean eta ez beste inon, une batean eta ez beste inoiz, haurtxo baten eta ez beste inorengan sortu eta jaioa.

"Jainkoa" diodanean, Ontasun Zoriontsua diot, den ororen Onezko Hondoa, diren guztien Maitasuneko Bulkada eraldatzailea. Zergatik deitu zioten Jesusi "jainkozko" edo "Jainko"? Oso sinplea da: ontasun zoriontsua bizi izan zuelako.

Nik ere bai. Den guztiaren Onezko Hondoa, "Jainkoa", ikusten dut eta gurtzen naximentuan: izar dirdiratsuan, goroldio apalean, artzain pobreengan, Maria eta Joserren begiradan, Jesus haurtxoaren gan. Eta beste guztiengan. Zuregan. \*

# GABONETAN bertan azpeitiko merkataritza

# 2.000€

## EROSKETA-TXEKEEN ZOZKETA

elkarteko dendetan gastatzeko

**Abenduak 22**

-500€<sub>ko</sub> saria  
-200€<sub>ko</sub> saria  
-100€<sub>ko</sub> saria

**Abenduak 29**

-200€<sub>ko</sub> saria  
-200€<sub>ko</sub> saria  
-100€<sub>ko</sub> saria

**Urtarrilak 5**

-500€<sub>ko</sub> saria  
-200€<sub>ko</sub> saria



ESKAINTZAK  
ZOZKETAK  
BERRIAK....

PROMOCIONES  
SORTEOS  
NOTICIAS..

[www.azpeitibertan.com](http://www.azpeitibertan.com)











### ▲ **INGURUGIRO-ETXEA.**

Iraunkortasunarekin lotuta, arlo tematiko desberdinak (klima aldaketa, biodibertsitatea, mugikortasuna...) lantzeko lau erakusketa areto ditu museoak; baita bideoteka eta ingurumen gaietan espezializatutako liburutegia ere. Eskaintza hori osatzeko, kanpoko hainbat instalazioetara ere ikustaldiak antolatzen dituzte. Horretaz arduratzen dira Ana Arruti, Edurne Agirre eta Itziar Uhanue.

# Jantzi berdez

Ingurumen-heziketarekin lotutako eskaintza zabala dute Ingurugiro Etxean. Museoko programez gain, beste bisita osagarriak egiteko aukera ere ematen du. 📌📷 A. Agirrezabala





### ▲ SAILKATZEN

Hondakinen programa ari dira lantzen argazkiko ikasleak. Hainbat hondakin dagokien edukiontzietan sailkatu behar dituzte.

### ► IGARA ERROTA.

Antzinatek datozen uraren ohiko erabilerak ezagutzeko aukera eskaintzen du XVIII. mendeko errota. Gaur egungo energia-iturrien arazoak ezagutzera ematen dituzte eta uraren indarra baliatuz, energia berriztagarri modura agertzen da Igarako errota. Igarara doazenek arto-irina nola egiten den ikusteko parada dute.







### ▲ **KONTSUMO IRAUNKORRAREN GELA.**

Kontsumo iraunkorraren inguruan hausnartzea da helburua. Horretarako, taldeka, erosketa baten simulazioa egiten dute ikasleek, eta erositakoaren arabera –bertakoa eta garaikoa den, alferrikako bildukinik duen, osasuntsua den...–, balorazio bat egiten da gela osoaren artean erosketarik arduratsuena zeinek egin duen ikusteko.

### ▶ **HONDAKIN UREN ARAZTEGIA.**

Etxeetako ur zikina ibaira botatzeko moduan jartzeko urari zer tratamendu ematen dioten azaltzen dute Lasako Badiologiko hondakin uren araztegia.



### ▲ **ESKOLA AGENDA 21, GA**

Urtero, ingurumen gai bat (ura, hondak materiala prestatzen dute museoko hezitzaileekin oinarrituta, Azpeitiko ikasleek herriko denda gabeziak, beharrak... aurkitzeko. Ondoren, foroa egiten dute eta udal-audientzian...



### ▲ **HIRI HONDAKINEN ZABORTEGIA.**

Sortzen dugun zaborrak zer tratamendu duen eta zabortegei kontrolatu baten funtzionamendua azaltzen dute Lapatxen.







### ▶ **ERRANTZIA BEREZIA.**

(inak...) hartu eta horren inguruko ziztaileek. Gero, material horietan diagnostikoa egiten dute dauden en, guztien artean eskolarterko aurkeztu.



### ▲ **IBAI-EDER URTEGIA, NUARBEN.**

6.598.000 metro kubikoko kontsumoa betetzeko eraikia dago eta zazpi udalerritako –Azkoitia, Azpeitia, Zestoa, Zumaia, Getaria, Zarautz, Orio– 61.173 biztanleren beharrianak asetzen ditu. Argazkian, emari ekologikoa; segundoko 900 litro askatzen ditu, gutxi gorabehera. Urtegiaren eta Oñatz bideko eta Lasako araztegien eskumena Gipuzkoako Urak enpresak du.

### ▼ **EDATEKO UREN ARAZTEGIA.**

Uraren zikloaren baitan, Ibai-Eder urtegiako ura Oñatz bideko araztegiara doa, eta han edangarri bihurtzeko beharrezkoa duen tratamendua ematen diote.



# Indarrak batuta

Natatxa Films eta Nazkau ez!! taldeen bateratzeak sortu dute Erabaki Produksioak. 'Oinaze galduak' da ekoizpen etxe berriaren lehen fruitua. 📝📷 A. Agirrezabala

**E**gunerokotasunaren atzarretatik askatzeko egarritz, erraiak sutan eta bihotza minez, guztia utzi eta berekin alde egiteko eskatzen ari zaio mutila, behin eta berri. Telefono deiei entzungor, ahul, mendekotasunean eroso, bizitza berri bati ekiteko indarrak gabe da neska. Ezin du ikusi hain gertu; sentitu hain urrun. Hasierako etsipenari eta desesperazioari, laster hartuko die lekua haserreak eta amorruek. Errutinaren amaraunean harrapatuta bizi diren bi pertsonaia bereziren ezinezko amodioa du ardatz Erabaki Produksioak ekoizpen etxe berriaren lehen uztak: *Oinaze Egoitzak* film laburrak.

Bederatzi minutuko iraupena duen fikziozko laburmetraia aurkeztu eta lehen emanaldia Sanagustin kulturgunean eskaini zuten, urriaren 24an. Lekeitioko 35. Euskal Zinema eta Bideo bileran ere aurkeztu dute lana, eta hil honen 14an Azkoitiko Matadeixe Kulturgunean ikusi ahalko da.

Natatxa Films eta Nazkau Ez! Produksioak taldeen bateratzeak sortu dute Erabaki Produksioak. Lau kidek osatzen dute taldea: Asier Sustaeta eta Oihan Amezua Nazkau

## ||| DATUAK |||||

### NATATXA FILMS

Zinema eta bideogintza indartzeko xedearekin sortu zuen lagun talde batek, 1999an.

**Record Man (1999).** Grabatutako lehen. Atleta baten historia du hizpide.

**Bazkaria poxpolotan (2001).** Gazte ezkontzen den bikote baten historia da.

**EHNAREN iragarkia (2002).**

**Bailara (2004).** Euskal mamuei buruzkoa. Zientzia fikzioa. Parthartzte handiena izan duen lana.

### NAZKAU EZ!!

**Nazkau Ez!!** musika-taldeko kide Asier Sustaeta eta Oihan Amezua kontzertuak eta bideoklip sinpleak grabatuz hasi ziren. Taldeak jotzeari laga bazion ere, geroztik **Ezinean**, **Leok'k** eta **12 Tribu** taldeentzat hainbat bideoklip grabatu dituzte.

Ez!-etik datoz; Karlos Ibarbia eta Netzer Bereziartua, berriz, Natatxa Filmsetik. Batera-tzeaz, produkzio talde berriaren hastapenez eta aurrera begirako helburuez hitz egin du Uztarriak Sustaeta eta Ibarbiarekin. Hala, talde berria sortuta, aurrerantzean egingo dituzten lanak Erabaki izenez sinatuko dituzte.

Indarrak metatzeko erabakia hartu aurreko urteetan ere, izan dute elkarren berri eta beharra bi taldeek. Nazkau Ez!! taldeko kide Sustaetaren esanetan, Tiobibo Azpeitiko rock taldearen *Koloreak* bideokliparen grabaketan toma bikoitzak hartzen laguntzeko eskatu zioten, 2004an. "Haiek erabiltzen zuten kamera bera nuen, eta kameralaria lana egin nuen. Duela bi urte, berriz, geu joan ginen haiengana eskean. Natatxa Filmsek Urrestillan lokala du, Udalak utzita; eskuragarri zegoen eta han grabatu nahi genuen Ezinean taldearen *Emakumea* bideoklipa".

### Hitzetatik ekintzetara

Azken aldian, Natatxa geldi samar zebilen; Nazkau Ez!!, ostera, abiatu berri. Batzuek eta besteek erabiltzen zuten materiala bera





Iñigo Aranbari, Erika Olaizola, Gurutze Eizmendi, Karlos Ibarbia, Oihan Amezua, Netzer Bereziartua eta Asier Sustaeta -lurrean eserita-. ||| **Erabaki**

zenez, elkarren beharrak asetzeko elkartzea erabaki zuten.

Duela urtebete hasi ziren taberna batean biltzen, astero. Hasieran, zinemagintzaren eta ikus-entzunezkoen joera berrien inguruan hitz egiten zutela adierazi dute, baina "erritmo hartan taldea erretzeko arriskua zegoela eta, teoriatik praktikara pasatzeko beharra" ikusi zuten; "alegia, hitz egiten genuen hori guztia martxan jarri behar genuela".

Bere garaian argia ikusi gabe geratu zen proiektu bat bazuen esku artean Natatxak: *Kronos*. "Oso aurreratuta genuen dena; grabatzea baino ez zen falta –dio Ibarbiak–. Aktorea azkoitiar bat izango zen; Frantziako Landetan grabatu behar genuen eta lekua

ere bisitatu genuen; lan hartarako diru bat bideratuta eta dena genuen, baina bertan behera geratu zen data kontuagatik. 2004a edo zen. Geroztik, kontu pertsonalengatik –seme-alabak izan, familia osatu...– taldea gelditu samar egon da, baina Netzer eta biok arantza hori, har hori genuen. Bagenuen proiektu hari berriz heldu eta gauzatzeko gogoia".

Hala, talde jaio berria martxan hasteko *Kronos* laborimetraia ona izan zitekeela eta lanari ekitea pentsatu zuten. "Baina hura grabatzeko eguraldi ona behar zen –gaineratu du Sustaetak–, eta uztaila arte itxaron beharra zegoen. Bitartean, beste zeozer egin genezakela eta, ideia bat bota eta garatzen hasi

ginen. Orduan sortu zen *Oinaze egoitzak* film laburra.

### **Kalitate handiko irudiak**

Natatxaren ordura arteko proiektu guztiak kalean grabatuak ziren, baina lokala edukita, espazio fisiko hura egokitu eta bertan gauzak egin zitezkeela jabetu ziren. Bi taldeen aurreko lanak ikusita, "helburu zehatz batzuk finkatu" zituzten. "Grabaketarako erabili dugun materiala, kamerei dagokienez, oso desberdina izan da, askoz ere hobea. Lehenago, etxeko kamerak erabiltzen genituen; gaur egungo kamera digitalekin alderatuta oso kalitate kaxkarrekoak. Noski, garai hartan, baliabide teknikorik ez genuen eta geneuka-



### **AIZPURU AUTOAK**

Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59  
 Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA  
**aizpuru@aizpuru.net**

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

**URBISTONDO**  
**MARGOAK**

Salbe Auzunea, 35 behea      20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

►narekin moldatzen ginen. *Oinaze egoitzak* lan honetan azpimarratzekoa da irudi aldetik lortu duguna. Pelikula batera inguratzen diren kalitate handiko irudiak dira. Kamerez gain, argiztatzeari dagokionean ere, azken lan honetan oso emaitza onak lortu ditugu. Orain arte, 500 voltoko Lidl-eko bi foko genituen; halamoduz genbiltzan, nahiko lanekin; baina Lakrikun Antzerki taldeak heuren argiteria utzi eta kristoren mesedea egin digu".

Ibarbiaren esanetan, "kontua da, kalitate hori lortzeko baliabide asko behar dela. Kasu honetan, Ohianek eta Asierrek jakinduria bakarrik ez, material aldetik ere ekarpen handia egin dute. Oihane duen kamera-ekipo profesional batekin ari gara, eta hori oso garestia da. Material tekniko garrantzitsua behar da eta taldeak baliabide propio hori izateko diru asko behar du. Orduan, uste dut hori ere badela erronka. Ezagutza prozesu bat da hau, denetik ari gara ikasten, eta lau lagun artean lan txukuna egin daiteke. Espazio fisiko bat badugu eta ekipo bat erosi eta maila hau ematen jarraitzeko zenbat txanpon behar dugun kontuak atera beharko ditugu".

Telebistako telesailetan edo filmetan ez bezala, Erabaki Produkzioak ekoiztetxe berrian ez dute zuzendari figurarik; ardurak eta lanak bakoitzak duen esperientzia pertsonalaren arabera banatu dituzte. Netzer Bereziartuak, esaterako, gidoia egin eta sakondu du; Karlos Ibarbiak audioa landu; Asier Sustaetak edizioa eta muntaketa lanen ardurak hartu ditu; eta Oihan Amezuak argazkiaren munduan duen esperientziarekin, kamera eta irudi lanetan murgildu da. Sustaetak kontatu duenez, "lan-ordu asko dira. Nik, esaterako, Internetetik pare bat programa jaitsita neure kasa etxean ikasi nuen editatzen. Denbora



asko eskaini behar zaio; hamar minutuko iraupena duen bideoklip edo laburmetraia bat editatzeko 300 ordutik gora behar dira, gutxi gorabehera". Dekoratu muntatzeak ere "lan eta buruhauste handiak" eman dizkiela gaineratu du Ibarbiak.

### Profesionalak, kamera aurrean

Ekoizpenerako erabili dituzten aktoreak etxe-koak izan dira: Erika Olaizola eta Gurutze Eizmendi ama-alaba azpeitiarrak, eta Iñigo Aranbarri azkoitiarra. Sustaetak aditzera eman duenez "neskaren papera argi ikusten genuen Erikak izan behar zuela. Ballet-dantzarria irudikatzen ezaugarri fisiko egokiak ditu: argala, azal txuria... Mutilari zegokionean, zantzua gehiago genuen, eta Olaizolak berak proposatu zigan Aranbarri. Eizmendirekin ere berari esker jarri ginen harremanetan.

Kontakizuneko bikotea Olaizolak eta Aranbarri osatzen badute ere, Eizmendik antzeten duen papera "giltzarria" da. Nabarmendu dutenez, "auziaren iltzea izango da. Bera filmean agertzen den momentuan hasiko da ikuslea istorioa ulertzen".

Grabazio gutzia, "personaika" egin dute. "Aktoreak elkarrekin ikusten dira filmean, baina ez dira plano berean agertzen. Sustaetak eta Ibarbiak aditzera eman dutenez, "oso gustura geratu gara egin duten lanarekin. Gidoia idatzita pasatu eta bakarrik funtzionatu dute aktoreek. Rec-i eman besterik ez dugu egin. Profesionalak dira eta gozagarria izan da haiekin lana egitea.

Erronka berrien aurrean, lanerako gogoia falta zaienik, behintzat, ezin esan. Zazpigarren artearen zale direnek ea aurrerantzean ere Erabaki ekoiztetxearen fruitu berriez gozatzeko parada izaten duten.\*

**DI-DA diseinua**  
zure lorategi edo terrazara diseinua  
**90€ren truke**  
www.kimubat.com

*Kimubat*

**SEGUROS BILBAO** | Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

**ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK:**

- ETXE ASEGURUAK
- AUTO ASEGURUAK
- DENDA ASEGURUAK
- BIZITZA ASEGURUAK eta abar.

**AURREZKIENTZAT PRODUKTU INTERESGARRIAK**

**Joxe Migel Muguruza**  
(Urola Erdirako agente eksklusiboa)

Tel: 652.776.909  
jm.muguruza@segurosbilbao.com  
www.segurosbilbao.com



**ERIKA OLAIZOLA** aktorea

## “oso garrantzitsua da pertsona batek zehazki zer behar duen esatea, zuk hori eman ahal izateko”

||| “Azalez zuria, gorpuzkeraz meharra”, bitxien kutxako ballet-dantzaria Erika Olaizola (Azpeitia, 1989) hezur-mamitu behar zuela argi zuten Erabaki Produzkioko kideek. Geroztik, haien “musa” bilakatu da aktorea.

### Zer moduzkoa izan da esperientzia?

Oso aberatsa. Ezustean harrapatu ninduen Netzerrek [Bereziartua] kalean. Proiektuaren berri kontatu eta nik parte hartzea nahi zutela esan zidan. Nik ez nituen ezagutzen, baina gogoarekin jaso nuen proposamena eta ikusi nuen zeozer garrantzitsua zela beraientzat. Istoria asko gustatu zitzaidan, ideia oso orijinala da, eta ‘aurrera’, esan nion. Lana ondo egin nahi duten pertsonak dira, eta oso gustura nago parte hartzearekin.

### Grabazioak-eta zer moduz?

Niretzako berria izan da kamera bakarrarekin grabatzea. Film laburrena ezagutzen ez dudan terrena da. *Goenkale*-n, esaterako, kanpoko grabazioak –zerbait berezia ez bada, behintzat– kamera bakarrarekin egiten badira ere, platoan bost kamera erabiltzen dituzte. Film labur honetan,



ordea, kamera bakarra dago, eta hasieratik bukaerara behin baino gehiagotan grabatu behar da, plano eta norabide desberdinetatik. Egun batean grabatu genuen. Egun gogor bat; esan nahi dut, goizean hasi eta iluntzeko hamaikak arte.

### Aipatzekoa da irudi aldetik maila handiko filma dela.

Hori ia beraiek lortu duten zera da. Nik ez nuen espero hainbesterako izango zenik, baina, bai; planoak, koloreak, argazkia... Asko zaindutako irudiak dira.

### Eta zer pentsatua ematen duen film laburra ere badela.

Ohituta gaude dena bandejan hartzera, bai antzerkian, bai... denean. Guk istorio bat dugu egin da, baina filma ikusi eta gero, bakoitza istorio desberdin batekin aterako zen, eta nik uste dut hori dela aberatsa, bakoitzak zer ulertu duen; zeren denenak balioko du, seguru baietz. Ez da ‘gauza bat horrela da eta kito’. Ez. Eta, gero, filmaren ondoren koadrilan iritziak konpartitze hori dago, ezta? Nik ere denetik entzun dut. Gustatu denei. Batzuk, ailegatu dira istorio hori lotzera. Beste batzuk, berriz, ez dute ezer ere ulertu; ez dira enteratu ere egin kukua

zela... Denetik dago. Baina beno, hor zaude zu esplikatzeko.

### Aktore-zuzendari figura faltan bota al zenuen?

Bai, nik esaten nien, lau pertsona zarete eta bakoitzak ondo dakizue zuen terrenoan zer egin behar duzuen, baina, horizontalean lana egiteak ekartzen du lau film desberdin egotea. Lau buru desberdin direlako. Orduan, oso garrantzitsua da pertsona batek esatea zehazki zer behar duen, zuk hori eman ahal izateko. Hori faltan bota nuen, babes hori...

### Eta, heroinazalearen papelean nola moldatu zinen?

Pintxatu egin behar nintzen, eta bizitzan espermentatu ez dudan zerbait da. Noski, neska harentzako hortzak garbitzea bezala izan behar zuen; egunero egiten duen zerbait. Terreno horretan ere pixka bat galduta aurkitu nintzen. Nola egin ez nekien, eta Netzerrek erakutsi behar izan zidan.

### Erabaki ekoiztetxearen proiektuetan hartuko al duzu berriro ere parte?

Beraien musa naizela esan didate, eta ni ere gustura. Lan-mundu honen gauza ona da egon naitekela han eta hemen gauza desberdinak egiten. Neuretzako ere esperientzia ederra da, eta dudarik gabe hartuko dut parte. Beraien ere badakite lasai deitu dezaketela, hor gaudela.✱

✉ **A. Agirrezabala**



# Justizia da gakoa

Mixio Taldeak bidezko merkataritza denda jarriko du aurten ere Frontoi Txikiaren ondoko lokalean. Ekimen nagusia dute hori azken urteetan. 📧📧📧 Mailo Oiarzabal

**A**zpeitiko Parrokiaren baitan, urteak dira Hirugarren Munduari begira lanean ari diren herritarrak elkartzen hasi zirela. Orain dela hogeit bat urte, Hegoaz Blai izenarekin hasi zen talde bat elkartzen eta ekimenak garatzen. Azken hamabost bat urtetik hona, berriz, Mixio Taldea izenarekin ari dira.

Izen horrekin misioetara begira aritzen direla ulertu badaiteke ere, taldearen jarduna hori baino zabalagoa dela azaldu diote Uztarriari bertako kideek. Lehen, urtean behin behintzat, "Gabon inguru horretan", misioetan zeuden herriko elizgizon eta emakume guztiekin harremanetan jartzen ziren, Beatriz Pratek (Azpeitia, 1966) kontatzen duenez: "Informazioa bidaltzen genien guztiei, zertan ari ginen pixkat azalduz; eta aldizkariak ere bai, Uztarria ere bai. Momentu honetan ez dugu urteroko harreman hori mantentzen; geu ere gero eta lotuago gaude, jende guxtiago ere bagaude... Orain batik bat bidezko merkataritzaren proiektuan gaude zentratuta. Hala ere, ez dugu galdu herriko misiolarietako kontaktua, eta haietako batzuen bidez hainbat proiektu bultzatu izan ditugu eta bultzatzen ditugu, haiek lanean ari diren herrialdeetan". Gaur egun hogeita bost bat dira azpeitiar misiolariak.

## Kontzientzia sortuz

Zortzi urte joan dira Azpeitiko Mixio Taldeak Gabonetan bidezko merkataritza denda au-

## |||ZER DIRA?||||||||||||||||||||

### BIDEZKO MERKATARITZA.

**Iparra-Hegoa.** Iparraldeko eta Hegoaldeko erakundeek osatutako nazioarteko mugimendua da. Herriak garatzea eta pobreziaaren kontra borrokatzea jomuga hartuta, ekoizle behartsuenak merkatura sartzeko baldintzak hobetzea eta nazioarteko merkataritzaren arau bidegabeak aldatzea du helburu.

**Baldintza duinak.** Halakoak daude merkaturatzen diren produktuen ekoizpenaren oinarrian: lan-baldintza eta soldata egokiak, haurrak ez esplotatzea, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eta ingurumena errespetatzea. Produktuak ekologikoak dira.

### BESTE PROIEKTUAK.

**Santiotako zekorra.** Mixio Taldeak festetako ekitaldi horretan egiten duen lanaren truke jasotako dirua garapen proiektuetara bideratzen du urtero.

**Afrika, Amerika, Asia.** Ruanda, Mozambique, Swazilandia, Dominikar Errepublika, Paraguai edo Indiarra joan izan da Azpeitian jasotakoa.

rreneko aldiz ireki zuenetik. Harrezkero, urtero jarri dute eta aurten ere hala egingo dute; abenduaren 17rako irekitzea dute asmoa,

Erregeak arte, Frontoi Txikiaren aldamenean duten lokalean.

Mundu mailako mugimendua da bidezko merkataritzarena, Hirugarren Munduko komunitateetan –sarri kooperatibetan– ekoizten dutenari merkaturatze duinagoa eman eta, horrela, ekoizleen bizi-baldintzak hobetzeko helburuarekin abiatutakoa. Edurne Arrutik (Urrestilla, 1972) gogoratzen duen bezala, "misiolarietako pertsonalki ez ezik, gu Gipuzkoako Elizbarrutiko Misio Ordezkaritzarekin harremanetan gaude", eta handik iritsi zitzaizen bidezko merkataritza bultzatzearen aldeko proposamena.

Harrezkero, taldearen jardunaren ardatz bilakatu da. Eta, hasieran askorentzat "txinoa" bezala bazen ere, "iruditzen zaigu erreferente bat bihurtu dela hainbat jenderentzat. Aurreneko urteetan jendea pixka bat galduta hurbiltzen zen, hori zer zen gehiegi jakin gabe. Orain, antzemanda gaude bai Gabonetako dendan, bai udaletxe azpian jartzen garenean, jende bat txintxo-txintxo etortzen dela beti, urtero", dio Pratek. Eta jendeak ez omen dio begiratzen ekimenaren jatorriari –kasu honetan, Eliza–. "Jendea gizarte justiziaren zentzuak bultzatuta dator, baita Elizarekin zentzuz ez duen jendea ere", diote taldekideek.

Gizarte justizia da, izan ere, bidezko merkataritzaren xedea, eta Mixio Taldekoak guztiz bat datoz helburu horrekin beraien ekimen





Ezkerretik eskubira, Lurdes Alzibar, Edurne Arruti eta Beatriz Prat, Mixio Taldeko kideak.

guztietan. Helburu horretara iristeko bidean, kontsumo moduak eta ohiturak aldatzea da pausoetako bat. "Gabonetan denda jartzen dugunean, agian ez espreski adierazita, baina bai antzematen dugula beste era bateko kontsumo ereduen aldeko apustua egiteko joera bat edo. Posible dela beste modu batean kontsumitzea, hain zaila egiten zaiguna. Antzematen da filosofia horrekin datorren jendea badagoela", Arrutik dioenez.

### Ateak irekita

Taldearen osasunaz galdetuta, azkenaldian kide kopurua murriztu egin zaiela diote: dozena bat lagun "oso aktiboak" modu erregula-

rrean lanean ariztetik, sei-zazpi bat izatera igaro dira. "Gu irekita gaude kide berriak hartzera", dio Arrutik. "Guztiz ahulduta ere ez gaude, baina jende berria gustura hartuko genuke". Zentzu horretan, Parrokiako taldea izatea zenbaitentzat oztopo izan daitekeenaren jakitun ere badira, baina "aurreiritziak alde batera uzteko" deia egiten dute. "Azken batean, justizia soziala bultzatzea da egiten dugun lanaren helburua", gogora dakar Lurdes Alzibarrek (Azpeitia, 1961). "Parrokian egon arren, nik esango nuke talde irekia gara. Gure taldera etortzeko hori ez dadila izan behintzat muga bat, ez delako horrela izan inoiz. Horiek, azken batean, aurreiritziak

dira, eta aurreiritziak eteteko, ezagutu egin behar da egiten dena", gaineratu du Arrutik.

Kide gehiagorekin, gaur egun garatu ezin dituzten beste zenbait gai ere (banku etikoa, Pobrezia Zero helburuarena...) lantzeko bidea ikusten dute egungo taldekideek. "Batik bat bidezko merkataritzan gaude zentratuta, ezin garelako ailegatu gai gehiago lantzerara". Dena den, ez dituzte saltzeko taldeko kide ez izanda ere urtean zeharreko egun esanguratsuetan lanera hurbiltzen zaizkienak, Santiotako txekorra banatzera edota Gabonetan dendan txandak egitera. "Oso ondo funtzionatzen duen sarea" dutela diote, "jendeak erantzuten du".\*

**Amenabar**  
DENDA  
gortinak, ohazalak,  
edredoi nordikoak ...  
Eliz-kale, 32-behea - Tel/Fax: 943 15 06 97

Euskal Herria, 34  
20730 AZPEITIA  
Tel.: 943 15 16 40  
**Ekain**  
Larrialdiak:  
943 15 16 40  
ALBAITARI KLINIKA

**IRENE ALTUNA**  
LORADENDA  
Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87  
www.ialtunadenda.com

**Koh Tao**  
OSAGARRIAK  
Foru Ibilbidea, 3 • Tel.: 629 688 193  
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)



### Euskara Zerbitzua

- Itzulpenak eta zuzenketak
- Euskara planak

### Komunikazio Zerbitzua

#### - Diseinua:

- Logotipoa, papertegia...
- Katalogoak, kartelak, diptikoak, triptikoak...
- Aldizkariak, liburuak, liburuxkak...
- Seinaleztapena

#### - Komunikazioa:

- Prentsa bulego lanak
- Komunikazio kanpainak
- Mailing-ak...



|||alaitz olaizola|||



|||gurutze eizmendi|||

# Azkena

**A**laitz. Azkeneko idatzian, oraingorako gaia pentsatuta huela esan hidan...

**Gurutze.** Pentsatzen ninan ahaztuta egongo hintzela... Utzi iezadan pentsatzen, ez naun akordatzan eta... Emaidan pista bat...

**Alaitz.** Pista ez, koskorrekoa emango dinat! Santomas egunaren harira izan huen ideia...

**Gurutze.** Ea... Santomasak, txorizoa, taloa, ardoa, sagardoa... Nahi badun emanidan koskorrekoa, baina ez naun gogoratzen.

**Alaitz.** Gure azken idatzian barregarri geratu behar ote dinagu ba? Ea, aztekek, inkak...

**Gurutze.** Asteka eta inkaka? Zer esan nahi dun, astero inkaka jardun behar dugula?

**Alaitz.** Hik ez dun erremediorik! Bete beharreko karaktere guztiak bete baietz gaiari heldu gabe? Hara, Gurutze... Mayak! San Tomas egunean mundua bukatzen dela ba!

**Gurutze.** A bai! Gure idatziarekin batera mundua bukatzen dun. Horrek esan nahi din gure ondoren ez duela inork idatziko. Akabo!

**Alaitz.** Ez, ez, ez... Badaezpada ordezkari-tza utzi beharra zukanagu... (*Alaitzek zerbait esango dio belarrira*).

**Gurutze.** A, bale... Ondo iruditzen zaidan. Aizan, mayek esandakoa sinetsi behar al dinagu? Zer dio San Tomasek?

**Alaitz.** San Tomasek? "¡Ver y creer!". Argi-goa ezin. Nori bururaten zaio munduaren bukaera San Tomas egunean jartzea?

**Gurutze.** Gu behintzat ondo agurtuko gaitun hilerio gure jarduna irakurtzen ausartu direnekin.

**Alaitz.** Makina bat buruhauste... Ondo esanak ondo hartu, eta gaizki esanak, agoantatu! Total, mundua bukatzera bazian...

**Gurutze.** Tripa ondo beteta joatea nahiko

|||ALAITZ. "Guk honekin bukatzen dinagu gure jarduna; Plazer bat izan dun"

|||GURUTZE. "Eskerrik asko Uztarriaren irakurle fidelei. Ikusi arte!"

niken. Aizan, *portzierto*, ze ordutan bukatzen dun mundua? Noiz jan kalkulatzegatik...

**Alaitz.** Goizean goiz hasi badaezpada, gero, auskaloi! Ez zakinat zer gertatuko den, baina mundua bukatu edo ez, guk honekin bukatze dinagu gure jarduna; hauxe gure azken idatzia. Plazer bat izan dun.

**Gurutze.** Ez zekinat lortu dugun, baina ahal dugun neurrian saiatu gaitun gure umorea jendeari iritsi arazten. Eskerrik asko Uztarriaren irakurle fidelei, eta nola ez, bertan lanean ari zaretenoi. Ikusi arte! Josafateko zelaian ikusiko dugu elkar!

**Alaitz eta Gurutze.** Mayek asmatzen ez badute, esku onetan uzten zaituztegu! Muxu gozo-gozoak...✳



# Kulturaz blai, abenduan

Afari musikatua, dokumental emanaldia, kontzertuak... izango dira abenduaren 5etik 23ra, Kultur Mahaiak antolatu duen III.

Kulturaldiaren baitan.  Ainitze Agirrezabala

Urtean zehar egindakoa borobiltzeko, Kultur Mahaiak beste behin ere antolatu du Kulturaldia.

Fermin Muguruzaren *Zuloak* filmaren emanaldiarekin abiatuko da aurtengo kulturaldia. Hilaren 5ean eskainiko dute, Soreasun (21:30). Gero, abenduaren 8an, *Zuloak* eta bizardunak taldeen kontzertuak izango dira, Sanagustinen, 23:00etan hasita.

Pako Aristi idazleak ere hartuko du parte; *Independentziaren paperak* bere liburu berriari buruz hitzaldia eskainiko du Baigeran, hilaren 11n (19:30).

Jan-edanerako tartea ere izango da, eta hala, Sahararen aldeko afari musikatua izango da, abenduaren 14an, Sanagustinen. (Afaria 21:00; kantaldia 22:00).

Ondoren, hilaren 17an, Arte eta Diseinuko ikasleen erakuske-

## III DATUAK

III Zer. III. Kulturaldia.

III Eguna. Abenduak 5, 8, 11, 14, 17 eta 23. III Tokia. Sanagustin, Soreasu eta Baigera. III Antolatzailea. Kultur Mahaia; Azpeitiko Emakume Txokoa, Khamar, Arte eta Diseinu eta Erniarraitzekin elkarlanean.

ta izango da, Sanagustinen. Han bertan egingo den *Txapel*-en omenezko bertso-saioarekin (17:30) itxiko dute aurtengo kulturaldia. Herriko hainbat artisten koadroak eta artelanak ere ikusgai jarriko dituzte herriko hogeibat dendetako erakuslehoetan, hilaren 20tik urtarrilaren 7ra.

Bestalde, hilaren 29an, Kultur Mahaiaren batzarra izango da, Baigera I-en, goizez.\*

## III. KULTURALDIA

### 20

**saltokitan.** Herriko hainbat artisten koadroak eta artelanak ikusgai jarriko dituzte dendetako erakuslehoetan.

### 29

**abenduan.** Kultur Mahaiaren urteroko batzarra izango da, Baigera I-en, goizez.\*

## BESTERIK

### 1 Boulder txapelketa

Presoen aldeko seigarren eskalada txapelketa jokatu da. Eskalatazailak maila desberdinetan banatuta lehiatuko dira: goizean, 10:30ean, umeentzako rokodromoa izango da. 13:00etan, hasiberrien mailako txapelketa izango da; 15:00etan txapelketa herrikoa, eta 17:30etik aurrera elite mailakoa. Izena, egunean bertan, eman behar da 10:00etatik 11:00etara. III Eguna. Abenduak 15 (zapatua). III Ordua. Egun osoa. III Tokia. Gaztetxea. III Antolatzailea. Gaztetxea.


### 2 Gabonetako haur-parkea

Hamar urte bitarteko umeentzat izango da, eta sarrera bi euro ordaindu beharko da. III Eguna. Abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra. III Ordua. 16:00-20:00. III Tokia. Izarraitz pilotalekua. III Antolatzailea. Gazteria Saila.

### 3 Uztarriaren bazkide batzarra

Uztarria Komunikazio Taldeko zuzendaritzak 2012ko kontuak eta datorren urtera begira dituen asmoak azalduko ditu. Uztarriak eskerrak eman nahi dizkie bazkideei laguntzagatik. III Eguna. Abenduak 27 (osteguna). III Ordua. 19:00. III Tokia. Sindikatu Zaharra. III Antolatzailea. Uztarria Komunikazio Taldea.\*

III Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: [uztarria.com/agenda](http://uztarria.com/agenda)



Zuloak taldeari buruzko film-dokumentala eta kontzertua eskainiko dituzte, Sanagustinen.



XXI mendea: emakumeok oraindik ez dugu behar besteko ordezkaritza erabaki tokietan. Emakumeon ahotsik gabe ez da demokraziarik.

#EgitekoAsko

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana



berdintasuna\*\*  
egiteko asko

[www.berdintasuna.tv](http://www.berdintasuna.tv)







||| SOLUZIOAK |||||

HITZ GEZIDUNAK

O	I	S	A	K	O	●	O	I	A	I	●
A	B	A	L	A	●	K	A	R	I	R	U
Z	I	●	L	E	U	A	M	●	R	U	●
A	●	I	O	T	K	I	●	O	A	O	U
●	A	L	O	K	●	A	N	U	L	U	●
I	R	I	A	R	A	P	A	L	A	X	T
R	U	Z	●	A	O	A	R	N	O	●	●
A	Z	A	T	A	R	A	R	G	●		
K	A	K	O	I	T	I	A	K			
●	G	●	E	●	K	●	L	●			

HITZ GURUTZATUAK

A	O	K	Z	A	R	D	N	A			
O	●	A	E	T	U	G	N	E	N		
K	A	U	T	O	L	●	P	I			
I	R	I	A	R	J	A	Z	A			
T	R	O	B	●	E	A	I	Z			
S	A	G	●	A	R	O	A	B			
U	T	●	A	Z	U	Z	E	R			
K	A	N	I	O	A	G	●	U			
A	E	A	B	A	G	A	G	A			

||| ZEIN DA? |||||



||| ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Abenduak 21 (ostirala) ||| NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia ||| IRABAZLEARI SARIA. Odriozola upategiko ardo sorta ||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ||| ZEIN DEN ADIERAZI.

||| ZURE IZEN-ABIZENAK

||| TELEFONO ZENBAKIA

||| UZTARRIAREN AZAROKO ARGAZKI LEHIAKETA |||||

ZEIN DA?

ESTHER LARRAÑAGA, POLITIKARIA

IRABAZLEA



Iñaki Urkia Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 144. irabazlea. Odriozola upategiko ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Iñaki Urkia, saria eskuetan duela.

**ODRIOZOLA ARDOAK**

gabonetako otarrak eta opariak egiten ditugu

Iñaki Azpiazu, 5 - Azpeitia - Tel. 943 15 13 16  
Axiri poligonoa, 10 - Azkoitia 943850059 / Aitzuri kalea - Zumaia 943860103



## ELKARRIZKETA gaizka zubizarreta (idazlea)

“Liburua amaitzea baino zailagoa izan da argitaratu ahal izateko bidea”

Mallorcan (Balear Uharteak, Herrialde Katalanak) bizi den urrestildarrak bizitzako ametsetako bat bete du *Mujer de canela* argitaratuta. Bere benetako jatorriaren bila bide luzea eta gogorra egingo duen Marlaniren istorioa da, euskaraz jaio eta argia gaztelaniaz ikusi duen eleberria.

### Nondik jaioa da Marlan?

Euskal emakumean inspiratuta dago. Nire ustez, euskal emakumeak erronka bat bizi izan du. Hau da, burujabetzaren bidean lidergo on bat nola eman, euskal kulturaren emakumeak duen presentzia garrantzitsuagatik; mitologiari hasita gaur egunera arte. Hor aitzindaritzatza bat dago eta, aldi berean, gozotasuna. Oreak horretan inspiratu naiz.

### Protagonisten herriak zenbat du Urrestillatik?

Dena. Istorioaren plato-a da Urrestilla. Horrelako toki batean, eta ez beste inon, existitu zitekeen kanelazko emakumea. Urrestillatik dena du istorioak, eta egile-

arengandik ere bai. Berezitasun askotan, autobiografikoa da.

### Pertsonaietako bat ito egiten du herri txikiko bizimoduak. Horrekin identifikatu al daiteke egilea?

Bai, erabat. Gaitasunak ahal dudana guztia garatzea gustatzen zait. Nahiago dut ozeanoan bizitzea, arrainontzian baino. Gainera, horrela, eskaintzeko gauza gehiago dudala iruditzen zait.

### Zer moduz autoedizioaren esperientzia?

Autoedizioan sartzeko oso-oso garbi izan behar duzu zer helburu

duzun, idazterakoan. Garbi ez baduzu, ez duzu izango aurrera segitzeko behar den motibazioa. Autoedizioan zeu zara guztiaren arduraduna. Garbi eduki behar duzu, ez duzula idazten gero zenbat jende irakurriko zaituen zenbatzeko; ez duzula idazten dirua irabazteko, honek ez du eta dirurik ematen. Idaztea bokazioa baldin bada, amets batez hitz egiten ari bagara, autoedizioarekin jarraitzeko nahikoa motibazio edukiko duzu; bestela, ez.

### Marlaniren bizitza gorabeheratsua *Mujer de canela* -renarekin alderatuko zenuke?

Oso bide luzea izan da. Bi urte eta erdiz buru-belarri ibili naiz lanean, eta liburua amaitzea baino zailagoa izan da argitaratu ahal izateko bidea. Argitaletxe askoren atea jo dut, literatur-agente askorekin hitz egin dut, eta azkenean autoedizioaren bidea hartu dut, ekonomia eta balore krisi garai honetan idazle berrientzako biderik onena hori delakoan.\*



## EFEMERIDEAK

# 1558

### Postutik bidali zuten.

Sebastian Altuna udaltzainari sendiarekin herri barrura bizitzera etortzeko jakinarazi zitzaion, baina agindua ez zuen bete, eta Baltasar Egurtza izendatu zuten udaltzain haren orde.

# 1587

### Zozketa bidez.

Sagardoa saltzeko txandak izendatu zituzten herriko 29 sagardogileren artean.

# 1719

### Bailaran garia urri.

Andaluziatik (Espainia) 1.550-2.000 anega inguru ekartzeko Gaztelako (Espainia) presidenteari baimena eskatzea erabaki zuten.

**Iturria:** *Azpeitiko efemerideak.* Herria historian zehar liburua.

**Egilea:** Imanol Elias Odriozola.

**Argitaratzailea:** Uztarria Kultur Koordinakundea.\*

# www.uztarria.com

## azpeitiko ataiye

||eguneko albisteak ||irakurleen erantzunak ||eguneko argazkia ||bideoak ||blogak ||inkestak ||agenda ||bitxikeriak  
||'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak,  
hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... ||uztarria herri aldizkari denak;  
PDF formatoan ere bai ||eguneko efemerideak ||gida komertziala...

||sartu sarean, eta hartu parte ||egunero **7.000** orrialderen bisita





# Bizkarrezurra

**P**ertsona baten bizkarrezurrak osaketa oso delikatuak duten 26 hezur ditu bata bestearen gainean. Mugikorrek dira, eta kurba bat baino gehiago dute-nez, elastikotasuna gehitzen, presioa arintzen eta traumatismoak lesio gutxiagorekin jasaten laguntzen dute. Akatsen artean, ondorengoak daude:

**Gutxiegitasun bertebra:** Goiztiar nekea sortzen digu, baita beherantz jotzen duten lekuan minsorrak ere, nahiz eta organoetako lesiorik ez izan.

**Diskoko lesioak:** Hernia, kasu. Gero eta gehiago eragiten digu, lanerako ditugun ohiturengatik.

**Zifosia:** Ia denok izaten dugu zahartzerakoan, eta horregatik, fisiologikoa dela diogu. 'Bizkar kargatua' ere esaten zaio; areagotzen bada, berriz, 'konkorduna' dela diogu. Denboraren poderioz, kaxa torazikoa txikitu eta arnasketa-arazoak sortzen dira.

**Eskoliosia:** Alboko desbideratzeak dira. Askotan, garai bateko gaixotasunen ondorioak izaten dira.

**Espondilolistesia:** Orno bat bestearen gainean irristatzea. Emakumeek sarriago izan ohi dute; zutik denbora luzean egonda edo esfortzu handiegiak eginez gehitu egiten dira min horiek.

Eguno sistema terapeutikoak hobetu egin dituzte pronostikoak eta gaitz asko sendatzen dira, nahiz eta prozeduraren iraupenak gaixoa aspertu askotan.\*



Julian bereziartua

# IÑIGO AGIRRE gabonetako apaingarriak saltzen ditu



**1. Erakusleiho ederra...** Ukitu eta lan gehiena honek du. Azaroko ganadu feriarenean astean jarrita, 'betekada' ere badut gabonak iristerako.

**2. Umeen gozagarri...** Parkera joan beharrean Agirrearena datoz txikienak!

**4. Naximentuko pertsonaia maitatuena?** Olentzero, alde handiarekin.

**3. Sarri garbitu behar izaten dituzu kristalak?** Dударik gabe! Sudurrarekin ikusten dute eta!

**7. Mantentzen al da jaiotza jartzeko ohitura?** Egun, figura bat jartzen da; ez lehengo naximentu handirik.\*

**5. Zeu aktore izana, Olentzero bizia jartzea ez duzu inoiz pentsatu?**

Egongo nintzateke bai, erakusleihoan etzanda.

**6. Goroldioa ere salgai?** Erosotasunagatik. Ondo ez bada sikatzen lizundu eta zomorroak sortzen baitira.

**7. Bitxikeriarik?** Kaganeten ondoan jartzeko Olentzero bat erosi zuen, kataluniarrikote batek.

Ainitze Agirrezabala

**CITROËN** 943 811 915 - AZPEITIA  
aiertzaautoak@telefonica.net

**Aiertza Autoak**

**lentzeria mertzeria**

jose artetxe, 16

nabar

**ostadar optika**  
OPTIKOAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17  
Tel. 943-810664  
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28  
Tel. 943-850445  
AZKOITIA

**luba**  
aholkularitza

Aholkularitza  
fisikala  
laborala  
kontablea

Gestori Tanak

Finken administrazioa  
Gestio Inmobiliarioa

Tel. 943 537 325 Faxa: 943 537 278  
Ezparan kalea, 45 • luba.ost@postelnet.net

**ORDULARI**

Jose de Artetxe, 10  
Tel. 943 81 52 44  
20730 AZPEITIA

**KIRURI**

**JATETXEA**

Loiola hiribidea, 24  
**LOIOLA - AZPEITIA**  
Tlfnoa.: 943 81 56 08  
Faxe: 943 15 03 62

arte eta diseinu ikastegia

**adi**

**Dibujo eta eskulanak**  
(haurrak) 17:30/19:00

**Pintura** 17:30/19:00

**Talla** 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3  
669 414 025 - 943812808  
matrikula urte guztian zabalik

# Herdoilik gabe

Oholtzatik jaistean ere ez da geldirik egoten den horietakoa. Beti batetik bestera, sekula geldirik ez, dantzaria da bizitzako beste alorretan ere. 📝 A. Agirrezabala

**H**itzordura garaiz iriste kontua ezin esan bere bertutea denik. Ia hiru ordu laurdenez atzeratu da, baina ezin errietarik egin, telefonoz abisua pasatu baitu, el-karrizketara ordurako ez dela ailegatuko esanaz. Sikiera. Behin mahaian eserita, presarik ez jaikitzeke. Jario handiko pertsona da, hizketan hastean. Saloiko dantzetan ibilbide oparoa du Jose Mari Orbegozok, baina kontu horiek alde batera utzita, oraingoan bestelako kontuetaz hitz egiteko prest dago, 48 urteetan bizitakoei errepasoa emateko pronto.

Bost anai-arrebetan gazteena, Sanjuandegiko Barrenetxe baserrian jaio bazen ere, baserriarretik gutxi edo ezer ere ez duela esatea ez da gehiegi esatea. "Dozena bat urte nituen. Patata ateratzera joan nintzen sorora, anaiarekin eta astoarekin. Buelta ematean astoak hanka zapaldu eta erori egin nintzen. Orduan hozka egin zidan. Harrezkerro, ez dut astorik hartu ezta baserriko lanik egin ere! Nik gutxi egingo nuen, baina anaia futbolariak oraindik eta gutxiago! Anaia zaharrenak izan du baserriko lanen ardura".

Eskolan jarraitzeko "gogorik ez" eta 14 urterako hasi zen lanean. "Betharramdarretan OHOk 8. maila bukatzean gurasoek bi aukera eskaini zizkidaten: ikasten jarraitu edo lanera, baserrian edo tailerrean. Pastorkuako barran hasi nintzen. Hango etxeoandrea, Karmen, eta Jabier semea bereziak dira nire-

## 'Barrenetxe'

|||Pertsona mugitua da oso; alferkerian egon zalea ez, behintzat. Onkologikoko tabernan lanean zela, arratsak libre zituen eta Lasarteko hipika-eskolan eman zuen izena. "Han zaldia gustatu eta bat erosi nuen. *Barrenetxe* izena jarri nion, baserria bezala. Hezitako animalia zen, 'dantza espainola' egiten zuen. C. Garmendia dantza-eskolan ere hasi nintzen, egunero, sei orduz, eta denboraz estu, saldu egin behar izan nuen zaldia. Zazpi urtez eduki nuen. Garai hartan, sansebastianetan, Donostiako danborradan ateratzen nintzen zaldian, Peña Anastasiorekin".\*



tzako. Ni hor beti etxeko ibili naiz eta nik ez dut pentsatzen nire etxea ez denik. Ostegunero bazkaltzen dut beraiekin. Eroso sentitzen naiz han lanean. 34 urte eta gero, oraindik Pastorkuan zerbitzatzeari ez diot utzi, eta herriko festetan han aritzen naiz".

## Psikologo ona

Soldaduskatik bueltan, Donostiara joan zen bizitzera. "Garai hartan anaia Realean zebilen, beste bi bazkiderekin *self-service* bat zabaldu zuen eta han hasi nintzen lanean. Urtebetera, Xixongo Sportingek fitxatu zuen, eta orduan Donostiako Onkologikoko tabernan zerbitzari hasi nintzen". Izaera gozo, alai eta biziko pertsona izanda, hango gaixo bat baino gehiagoren entzule xamurra izan da. "Pastorkuako lanak ez zuen zerikusirik Onkologikoarekin. Han ez zen ikusten jendea besoa hautsita edo familia izan berri. Arazo serioa duzulako zaude han, eta han egin behar zenuen jendearen arazoak entzun, animatu... Orain, adinean aurrera, karakterra aldatu egin zait, baina orduan oso alai nintzen, eta jendea nirekin oso gustura egoten zen. Mutikotan eskusoinua jotzen ere ikasi nuen, eta Gabon egunean gelaz gela joaten ginen erizaina eta biok eskusoinua hartuta".

Beasaingo dantza-eskolan du eskusoinua eta "jendeak uste izan arren adornuan" duela, oraindik ere hauspoari eragiten dio oso noizean behin. "Gabon gauetan eta Egu-





Joxemari Orbegozo, Soreasu kulturguneko atarian. ||| Ainitze Agirrezabala

berri egunean jaiotetxera joaten naiz, eta han inoiz atera izan nuen akordeoia; orain ia ez. Jan, lasai egon, kontu zaharrak berri eta jokoan egiten dugu. Musean. Berez ez naiz kartetan jokatu zalea; urtean behin egiten dut, koinatua eta biok bi anaien kontra. Bosna euro jartzen dugu, baina eman behar milioiak daudela jokoan. Galtzaile txarrak dira oso”.

### Eguneroko gauza txikiak

Dozena erdi bat urtez, Urte Zaharreko mahatsak Kuban jana ere bada. “Lagun asko dut hor zehar, eta zubiren bat parean bada, kanpora joateko aprobeztatzen dut. Oporrak abuztuan izaten ditut, baina ez naiz museoak eta ikusi zalea; mendizalea ere ez; hondartza bai, hori bai! Urte askoan Menorcan izan naiz, eta aurten Bulgarian”.

Astea lanean pasatuta, musikarekin eta dantzarekin “kokoteraino eginda” bukatzen du, eta asteburuan “patxadan” egon zalea da. “Larunbatetan eskolak eman, Hendaia, etxera, erretiratu eta gustuena hantxe egoten naiz. Ateratzekotan, plan lasaian. Koadrila Donostian dut, eta lagunekin zinemara joaten naiz Irunera edo, Hendaian frantsesez izaten baitira. Ikusitako azkena *Lo Imposible* izan da. Negar egin nuen. Oso sentimentala naiz, *ustela*. Eta, bestela, lagunekin norabait afaltzera. Jatun ona naiz, gozozale ikaragarria! Nik ez dut bizitzan beste inor ezagutu hainbeste dieta egin duenik. Baina, lanerako erreminta gorputza dut eta beti zaintzen!”.


Bizitzako eguneroko gauza txikiez eta zale-tasunetaz galdetuta, baditu aipatzeko batzuk. Esaterako, Hendaia “Iotarako herria”

baino ez da Orbegozorentzat; bizitza erdia baino gehiago herritik kanpo eta oraindik Azpeitian dago erroldatuta. “Ni ez naiz hemendik mugitzen”. Astean hirutan gurasoak bisitatzea eta amarekin telefonoz egun biz-bat hitz egitea ere usadio “sakratuak” ditu. Etxeko bakardadea arintze aldera, txakurra ere badu, westy-a. “Etxeko alaitasuna da. Hugo du izena; izan ere, orain txakurrei pertsonen izenak jartzen zaizkie, eta umeei animalienak. Idi eta asto-probak ere gustuko ditut”.

Arropa eroste, berri, aipatzeko moduko bizioa. “Moderno jaztea gustatzen zait. Donostian eta Madrilen erosten dut arropa. Erakusleihoko zeozer gustatzen bazait, sartu eta erosi egiten dut. Nahiz eta 48 urte eduki, ez dut pentsatzen horiek ditudanik”. Ia mende erdi bizkar gainean, eta halere gazte!✘



1. Pastorkuan, zerbitzari. 2. Onkologikoan, eskusoinuarekin. 3. Menorcan, oporretan.



## TELEFONO ZENBAKIAK

### TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

### OSASUNA

Anbulatorioa	02 54 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

### KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	08 06 88
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemailea)	81 26 32
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Erla Tebista (Azpeitia)	81 53 35
Izarraitz Tebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

### ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
BILDU	15 72 00

## FARMAZIAK (ABENDUA)

### EGUNEZ

1-2-6-13-28-31	3-7-8-9-14-25-26	4-10-15-16-27	5-12-29-30	11-17-18-19-20-21-22-23-24
Alberdi (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).
943 81 59 74	943 81 12 74	943 08 02 58	943 81 19 49	943 81 13 50

### GAUEZ

1-2-14-27	3-4-5-6-7-8-9-31	10-15-16-24-25-28	11-12-29-30	13-26	17-18-19-20-21-22-23
Azpiazu (Azkoitia).	Jacome (Azpeitia).	Gisasola (Azkoitia).	Ruiz (Azkoitia).	Jaen (Azkoitia).	Aranburu (Azpeitia).
943 85 29 89	943 08 02 58	943 85 12 35	943 85 19 66	943 85 06 60	943 81 13 50

### LARRIALDIAK

# 112

### ODOL-EMAILEAK

Abenduaren 26an izango dute hitzordua, 18:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

### EA

81 00 11

### SINDIKATUAK

ELA 81 34 46

LAB 15 13 56

EHNE 81 39 28

### KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa 81 45 18

Udal Euskaltegia 81 19 47

AEK 15 10 89

EHE 15 10 89

Udal Liburutegia 15 71 95

Loiolako Liburutegia 81 65 08

Kontseilua 943 59 12 00

Bai Euskarari 902 43 00 26

### IKASTETXEAK

Iraurgi 81 02 10

Iraurgi (Betharram) 81 16 68

Iraurgi (Milagrosa) 81 63 80

Iraurgi (Jesuitinak) 81 22 49

Ikasberri 15 12 46

Karmelo Etxegarai 81 26 97

Urola BHI 15 02 28

### BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbian.) 273 posta

Xoxoteko aterpea 58 10 07

Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak

943 08 06 88

## ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 08:30-14:00 ||| Larunbata: 09:00-12:30 UDALTZAINGOA ||| Egun osoz irekita egoten da ANBULATEGIA ||| Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste astegunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita KIROLDEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 UDAL LIBURUTEGIA ||| Astegunak: 09:30-13:00, 16:00-20:00 ||| Larunbata: 09:30-13:00 ||| Udan, Gabonetan: 08:30-14:00 ZAPO TXOKO ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

## ERABILGARRI



## ▲ ATERA ETEKINA!

Herriko hainbat saltokitan erabiltzeko deskontu kupoiak banatu ditu Bertanek, 'Azpeitian bizi, Azpeitian erosi' kanpainaren baitan. Denda bakoitzaren eskaintzaren arabera erabili ahalko dira.

## GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegi osoa:

www.uztarria.com/azpeitia/  
autobusak



# MARI HERMINA

korrikalaria

“Erdikalea ederra da; jendeak txaloka eramaten zaitu”

Senarrari ezustekoa emateko asmoz hasi zen korrika, 2004an. Geroztik, urtea hala amaitzen du, San Silvestrean. ✍️ A. Agirrezabala

**N**olatan hasi zinen lasterka?

Nobiotan, Zarauzko mistorako preparatze esaten zidan bikotekideak, baina ni animatu ez. Gero, 15 bat urtean jardun zidan esaten: ‘Aurten bai, Mari, egingo al dugu mistoa?’. Esateari laga eta bost bat urtera, sorpresa eman nahi niola eta korrikan prestatzen lagundu zidan seme gazteenak. Semeak sekulako pazientzia eduki zuen. Senarrak, berriz, ez zuen sinesten korrika egin behar nuenik. 2004ko mistoan irten nintzen, eta harrezkerro, gizonak asko animatu eta lagundu dit.

**Gustua hartu diozu, beraz?**

Gizona eta biok elkarrekin egoteko arrazoi bat da. Nik disfrutatzen dut nire erritmora, baina gizonak beti bi metro aurrerago joan behar izaten du. Korrika noala nik jendeari kaso egiteko ohitura dut, eta gizonak dio ez dela kasorik egin behar, eta kaso egiteko indarra badut, gehiago joateko ere indarra badudala. Lan-erleboaren arabera, lagunekin ere egiten dut korrika, kontutan, lasai-lasai.

**Zer lasterketetan hartzen duzu parte?** Ikasberriko mistoan; Donostiako 15km-koa ere urtero egiten dut. Donostia ederra da ko-

rrikarako, laua da, hondartzak... Gero, seme zaharrena ikustera ere asko joaten gara.

**Etxeko guztiak korrikalariak, beraz?**

Bai, eta arropa zikina ere halaxe sortzen da. Eskerrak ez dugun lokatzetako krosik egiten.

**Zer ematen dizu korrikak?**

Lehenago ez nuen ezer ere egiten; zigarroa erre. Hori orain ere bai, baina orain alde ederreko arintasuna dut eguneroko bizitzan eta arnasa ere ez zait hainbeste berotzen.

**Egin gabeko erronkarik ba al duzu?**

Ez daukat horrelako zerarik. Xoxoteko Zuzenien bi aldiz egin dut; Txindokiko bertikala behin... Horiek ahoa ireki eta asko hitz egiteagatik. Maratoia, berriz, hitz handia da. Behobia egiten gizonak lagundu zidan 2008an, eta ondorenean, nire argazkia zuen egutegia eta koadro bat oparitu zizkidan. Oso detallista da. Berarentzako meritua izan dut, 20 urte eta gero korrika hasita.

**Urtea korrika bukatuko al duzu?**

Bai, San Silvestren urte askoan atera naiz. Erdikalea kristoren ederra da; jendearen berotasuna sentitzen duzu, jendeak txaloka eramaten zaitu. ✨




1

1. Behobiako proba, 2008an. 2. Senarra eta lagun batzuekin Donostian, iaz. 3. Donostiako 15 km-ko proba egin aurretik berotzen, Marije lagunarekin.



2



3

# Idazle eta argazkilari

# O

7:30ean jo du esnagai-luak. Ez dago jaikiko denik. Baina jaiki beharra dago. Gosaldu beharra dute etxean, nola andreak, hala alabak. 08:12etako autobusa hartu du andreak. Badoakizu ospitaleko lanera. Gosaldu duzu, kontsultatu duzu Internet, beti bada zerbait, gure alderdi honetako mundua lotan den bitartean, esna dago beste aldekoa. Gosaldu eta 08:30ean guruzte alaba esnatu duzu. Hark gosaldu bitartean, norbera garbitu eta jantzi. Alaba garbitu eta jantzi dadin arduratu. Bizikleta hartu eta erdarazko ikastolara bidean zoazte 09:12an. Han zarete 09:25 baino lehen. Alabari muxu handi bat eta besarkada goxo bat eman eta bazoaz, eguneroko borrokan. Idaztekoa zara, eguneroko legean. Hala ere, andrearen autoaren aseguruua negoziatzekoa zara. Lehenago ere hitz eginda zaudenez, bulego jakinera joan zara. "Oraindik ez al da etorri Aintzane?". Hamarrak arte ez omen da etortzen. Zer edo zer irakurriko duzu bitartean. Izan liteke egunkaria, izan liteke egunotan irakurtzen ari zaren liburua: *Ttu eginen dut zuen hilobietan*. Boris Vian da egile. Juantxo Ziganda itzultzaile. Hil zen Juantxo. Gazterik. Oroitzapen gozoa duzu mutilarena, orain dela hogeitau urte irakurri zenuen liburu mikatzarena...

Bulego atarian haruntz eta honuntz eman duzu denbora. Jarri ere egin zara, irakurri ere egin duzu... hamarrak. Delako Aintzanearen arrastorik ez. Hamarrak eta laurden, hamar eta erdiak. Aintzanezik ez bistan. Sartu zara bulegora. "Aintzane beste inork ez al du aseguru konturik zuzentzen?". Ez nonbait. "Baina Frantzia kalean badugu beste bulego bat". Bizikletan zara, hara bidean jartzeko asmoa duzu. Ez alferrik. Zulatua duzu aurreko gurpila. "Oraintxe santu guztiak amenean!". Hartu bizikleta eskuan eta bazoaz Frantzia kale horretako bulegora. Kale berean, bada-kizu, bizikleta denda duzu. Kanpotik barrura begiratu eta erakuslehoan ikusi duzu Rakel, ziklista txapelduna sasoi batean. Hamaikak



|||||||miel a. elustondo|||||||

|||Alabari muxu handi bat eta besarkada goxo bat eman eta bazoaz, eguneroko borrokan

dituzu. Sartu zara. Zulatua. "Atzo aldatu nion kamera. Gaur, zulatua berriz!". Eta horretarako gero, frenoak tenkatzeko, aurrekoak ere aldatzeko, alferrik galduta daude aspaldi. Alaba atzean eramateak dituen ajeak. Haiek bizikleta konpondu bitartean andrearen aseguruua zuzenduko dizuten bulegora joan zara. Inor ez zain. Krisia. Hitz egin duzu. Baietz, garesti ordaintzen ari dela andrea. Autoaren potentzia fiskala. "Zer da hori?". Begiratzeko autoaren agirietan. Telefono eta emailuak hartu, bulegotik irten eta bizikleta dendara berriz. Bizikleta prest! Oraintxe santuak amenean!. Hamabiak gainean. Ogia hartu duzu etxera bidean. Han beti da ilara. Txistuan etxera. Aza garbitu eta egosten jarri. Bezperako hondarrak ere badira. Gaitz erdi. 12:40, hartu bizikleta eta erdarazko ikastolara berriz. Alaba jasotzera. Hura hartu eta buelta etxera...

Inon zure berri ematean, "idazle eta argazkilari" diote. Balekitez!\*





1.solairuan gaude

# urrategideko

altzariak & sukaldeak



Haurren logelak promozioan urtea bukatu arte.  
Eskatu olentzerori zure logela



Arretxe Kalea 9 - 1. Solairua  
20730 Azpeitia (Gipuzkoa)  
Telf. 943 85 72 44 · Fax. 943 85 13 14  
urrategideko@urrategi.eu  
[www.mueblesurrategi.es](http://www.mueblesurrategi.es)





horzkari  
hortz osasun klinika



Gabon zoriontsuak  
eta urte berri on!



[www.grupohorzkari.com](http://www.grupohorzkari.com)

Iberotarren plaza, 4 behea  
20730 azpeitia gipuzkoa  
t. 943 81 44 50  
f. 943 81 50 52

**Finantziazioa**  
**%100**

Hasi

Ukabi 

